



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

170. INFORMAZIO BULETINA

> 2021eko abendua

GIPUZKOA





NABARMENDU BEHARREKOA

- > **Aldundiak Etorkizuna Eraikiz Congress antolatu zuen, lurraldeko gobernantza kolaboratiboaren eredia sendotzeko balioko duen nazioarteko kongresua, munduan aurreratutako esperientziekin kontrastatuz**

Markel Olano ahaldun nagusiak kongresuaren inaugurazio ekitaldian parte hartu zuen, Jose Ignacio Asensio Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatuarekin eta Eneko Goia Donostiako alkatearekin batera. Bere hitzaldien ondoren, inaugurazio-hitzaldia Cinzia Alzidik, CEPS (Centre for European Policy Studies) erakundeko ikerketako zuzendari eta Politika Ekonomikoko Unitateko buruak eman du.

Alzidik pandemiaren osteko susperraldi ekonomikoa eta soziala erraztera bideratutako erantzun politikoari eusteko deia egin zuen. "Europa azkarrago ari da suspertzen, ekonomiaren, enpleguaren eta gizarte-zerbitzuen esparruan garatutako politika publikoei esker. Etorkizunari begiratuz gero, erronka nagusiak gazteentzat enplegua eta egungo lanpostuei eustea, gure politika sozialen iraunkortasuna eta ekonomia berde baten garapena dira".

Gogorarazi duenez, egungo krisiaren garrantzia ikusita, Europar Batasunak baliabide zabalak jarri ditu etorkizuneko erronkei aurre egiteko. "Denbora gutxi dugu bizi ditugun aldaketan aurrean erantzuteko, gure gizartea prestatu behar dugu horretarako. Erakundeek baliabide horiek erabiltzeko duten kalitateak eta gaitasunak arrakastaren eta porrotaren arteko aldea ekarriko du", Alzidik adierazi duenez, eta politika publikoen garapenean gizartea partaide egiteko beharra azpimarratu du.

(informazio +)



> Bide Azpiegituretako Foru Departamentuak Europar Batasunaren irizpideak hartu ditu erreferentetzat Astigarraga-Oiartzun GZI Garraioaren Zentro Integralean edo N1 eta A15eko kanonean

Astigarragako aparkaleku seguru eta zaindua irekitzearekin batera, GZI- Astigarraga-Oiartzun Garraio Zentro Integrala errealitate erabat operatibo bihurtu da, egunero Gipuzkoa iparraldetik hegoaldera E-70 AP-8/AP-1 Europa barneko ardatzetik zeharkatzen duten milaka garraiolarien zerbitzura. Markel Olano ahaldu nagusiak eta Aintzane Oiartzun Bide Azpiegituretako diputatuak zentroaren instalazioak bisitatu dituzte, eta Europar Batasuneko segurtasun maila handieneko baldintzak bete dituzte. Aparkalekua Oiartzungoarekin batera jarri zen martxan, azaroaren 15ean hesiak altxatu baitzituen. Bi aparkalekuak probaldian edo martxa zurian sartu ziren, zerbitzu guztien funtzionamendu egokia egiaztatzeko eta Urrezko Mailarekin bat datozen Europako ziurtapen-irizpideak egiteko. Europaren eta Penintsularen arteko lotura logistikorako lurralde giltzarria da Gipuzkoa. GZI irekitzearekin batera, helburua ardatz atlantikoko garraio-azpiegitura hobetzen eta babesten laguntzea da, adierazi duenez ahaldu nagusiak, GZIn instalazioak bisitatu ondoren.

Bestalde, Gipuzkoako Batzar Nagusiek, osoko bilkuran, Gipuzkoako A-15 eta N-1 errepideetan salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunentzako erabilera-kanona ezartzeko Foru Arau berria onartu dute. Gogoratu behar da, 1999/62/EE Zuzentarauaren arabera, informazio hori Batzordeari bidali behar zaiola, Batzordeak bere irizpena eman dezan. Hala, foru-arau berria txosten horren mende egongo da. «Ebidentzia ezin da ukatu, eta ebidentziak dio errepideak mantentzeko eta ingurumena zaintzeko, emisio kutsagarriak murrizteko eta jasangarritasuna bultzatzeko Europako politikak erabileragatiko ordainketa behar duela», adierazi du Oiartzun Bide Azpiegituretako diputatuak, eta gaineratu du Europar Batasuneko estatu gehienetan urteak daramatzatela ahalmen handiko errepideetan erabiltzeagatiko ordainketarekin, eta Espainia ere behartuta dagoela autobide eta autobietan ezartzera 2024rako. Gu izan gara Europako Zuzentzarua estatuan ezartzen hasi garen lehenak. Garraiolariak Europako gainerako lekuetan betetzen dute erabileragatiko ordainketa.

Sailak, 2022, 2023 eta 2024rako aurrekontuetan, A-15eko tunelak Europako segurtasun-zuzentzarura egokitzeko partidak ditu. 2022rako beste aurrekontu-partida batek Gipuzkoa Living Lab babesteko du, errepideetako konektibitate eta kontrol digitalekoa, EBko Next Generation funtsetarako hautagai den proiektua.

(informazio + - GZI)

(informazio + - Bidesariak)



> **Euskadiko Iraunkortasun Turistikoko Lehen Lurralde Planak Europako funtsen 67 milioi bideratuko ditu 3 urtetan; horien artean, 4,4 milioi Donostian edo 2 milioi Irunen, ingurumen arloan, digitalean edo mugikortasunean, besteak beste**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak, Javier Hurtadok, helmugako turismo-jasangarritasuneko lurralde-plana aurkeztu zuen. Plan horrek lehen Next Generation funtsak euskal turismora iristea ekarriko du, lehen deialdi honetan 24 milioi euro lortuta.

Era berean, sailburuak turismo-eragileekiko koordinazioa nabarmendu du, kasu honetan aldundiekin, udalekin, eskualdeekin eta mankomunitateekin, baita turismo-garapenerako agentziekin ere.

Gipuzkoaren kasuan, Eusko Jaurlaritzak funtsen helburu hauek nabarmendu ditu:

Irun (Udala): 2 milioi. Oiasso Erromatar Museoan ingurumen arloa eguneratzea, energia egokitzea eta erreserba-sistema eta termen online denda digitalizatzea, eta irisgarritasun-plana.

Donostia (Udala): 4,4 milioi. Done Jakue bidearen ingurumena lehengoratzea, mugikortasun jasangarria eta irisgarritasun turistikoa hobetzeko plana, eta digitalizazio eta adimen turistikoko plana.

Donostiaren kasuan, Udalak inbertsioei buruzko hainbat xehetasun eman zituen. Horien artean, Donejakue bidean korridore ekologikoak sortuko dira, Ulian eta Igeldon kostako ibilbide bat eginez; Illunbe eta erdialdearen arteko bus-anezka ere sartuko da; Artikutzan natur inguruneari balioa emango zaio Ostatua birmoldatuz eta biodibertsitatea ikertzeko programa batekin. Beste ekintza batzuen artean, honako hauek daude: Hipodromoko instalazioak hobetzea edo establezimendu turistikoetarako kargazutain elektrikoak zabaltzea; kultura-, ondare- eta hiri-informazioko euskarriak, auzo guztietan; hurbileko turismo-produktuak sortzea; aisia-turismoko enpresetan ingurumen-jardunbide egokiak hartzea («Lehiakortasun» ardatzean); ardatz digitalean, Wimax-zuntz sarea eta Alde Zaharreko Smart egokitzea, bai eta ingurune digital berriak ere.

Planak 4,4 milioi euro banatzen ditu 4 ardatzetan: 1,2 milioi euro trantsizio berdean, 1,4 milioi euro trantsizio energetikoan, 1,1 milioi euro trantsizio digitalean, eta 0,7 milioi euro lehiakortasunean.

(informazio +)



> **Donostia 2022ko Gabonetako Europako Hiriburu izendatu dute, Genovarekin batera, Eguberrietako eta Europako balioak sustatzeagatik, eta ekonomia, aisia, ongizate eta turismorako Gabonetan bultzatu dituen ekimenengatik**

Izendapena Italiako hiriarekin partekatuko du, Gabonetako Europako Hiriburuaren Lehiaketaren Nazioarteko Epaimahaiari aurkeztutako proiektuaren maila tekniko altua, bere proposamenak eta hiriak Eguberrietako Europako balioekin duen konpromisoa baloratuak izan ondoren. Donostiako 2022ko Gabonetako proiektuak hainbat elkartasun-ekintza, teknologia berriak edo Gabonetako Merkatuaren nazioartekotzea aurreikusten ditu. Hiriak Europar Batasunaren berezko balioak sustatzeko duen konpromisoa kontuan hartu du.

Eguberrietako Hiri Europarra saria 2017an sortu zen, Europar Batasuna osatzen duten estatuen arteko bakea, bizikidetzeta eta harmonia sustatzeko helburuarekin.

Udalak honako alderdi hauek nabarmendu ditu: Gabonetako argiztapena, ibaiaren ondoan Europa erdialdeko estiloan ezarritako merkatua, elkartasun-, inklusio-, berrikuntza- eta originaltasun-balioak, GKEei, merkataritzari, kulturari, hezkuntzari, elkarteei, ostalaritzari eta turismoari emandako laguntza, eta EBko Gabonetako hirien sarearekin jardunbide egokiak trukatzeta. Ekimen berriak aurreratu dira, eta horiek Urgull bezalako eremu berrietara zabalduko dira.

Lehiaketako epaimahaiburua Eurolegebiltzarraren presidente ohi bat izan da, eta sare horretako presidenteak eta herrialde ezberdinetako enbaxadoreek osatzen dute mahaia, baita marketin turistikoko aditu batek ere. Lehiaketaren ekimenaren atzean Iberoamerika Europa Fundazioa dago. Urtero hiri bat saritu da, eta 2022an bi saritu izanaren arrazoia izan da pandemiaren ondorioz saria aurretik eman gabe geratu izana.

(informazio +)



ESKUALDE POLITIKA ETA KOHESIO POLITIKA

> **Gipuzkoak elkarlaneko gobernantza-ereduaren garapenean lortutako aurrerapenak partekatu ditu Baionan, Aldundiaren eta Pirinio Atlantikoetako Kontseiluaren mugaz gaindiko koordinazioaren esparruan**

Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak lan-topaketa bat izan zuen Baionan Jean-Jacques Lasserre Pirinio Atlantikoetako Kontseiluko presidentearekin eta sailtako kontseilariekin, lurraldean elkarlaneko gobernantza-eredu baten garapenean lortutako aurrerapenak partekatzeko. Olanok, Mikel Pagola Partaidetzarako foru zuzendariarekin batera, Etorkizuna Eraikiz programaren bidez antolatutako ekimenak eta azken urteotan Gipuzkoan garatzen ari diren ekimen parte-hartzaileak aurkeztu ditu departamenduak Lapurdiko hiriburuan duen egoitzan.

Bilera Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseiluak hainbat arlotan duten lankidetzaren barruan kokatzen da, hala nola gizarte-politiketan, garapen ekonomikoan, ingurumenean eta gobernantza berrian. Ahaldun nagusiak gogorarazi du Etorkizuna Eraikizek elkarlanerako eredu bat eskaintzen diola gizarteari, Gipuzkoaren etorkizuneko erronkak identifikatu eta horiei erantzuteko, eta helburu horretan ezinbestekoa dela egiten dena partekatzea eta beste esperientzia batzuetatik ikastea.

Gipuzkoak bokazio europarra eta mugaz gaindikoa du, eta Bidasoaren bi aldeetako erakundeekin batera lan egitea erabaki du, pertsonen, haien ongizate ekonomikoaren eta sozialaren mesedetan.

(informazio+)



> **Zergabidea zerga-kudeaketako plataforma jardunbide egoki gisa aurkeztu zen, % 50ean kofinantzatutakoa EGEFen Euskadiko 2014-20 Programa Eragilean, estatu mailako Eskualde Politikaren eta Europako Funtsen urteko ekitaldian**

Urteko ekitaldi hori bi jardunalditan egin zen abenduaren erdialdean, modu telematikoan, eta hainbat autonomia-erkidegotako Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren programa Eragileetakoekin batera finantzatutako proiektuak aurkeztu ziren.

IZFE sozietate publikoak, Gipuzkoako Foru Aldundiko kudeaketa informatikoaren arduradunak, Zergabidea aurkeztu zuen. Administrazio publikoa bide elektronikoz digitalizatzea eta berritzea da EGEFen berariazko helburuetako bat.

Plataforma honek Gipuzkoako Foru Ogasunaren eskumen-eremuan zerga-prozesu osoaren eta zergen ordainketaren kudeaketa integrala egiteko balio du. 150 eredu edo zerga-agiri baino gehiago bete daitezke bertan.

IZFEko arduradunek gai horren kudeaketa informatikoaren ibilbide historikoa azaldu zuten, eta Zergabideak 2017an proiektu pilotu gisa hasieratik ahalbidetu duen kalitate-, erabilgarritasun- eta eraginkortasun-jauzi kualitatiboa deskribatu zuten. Zergak ordaindu behar dituzten Gipuzkoako eragileek plataforma informatiko horretan tresna guztiak dituzte beren zerga-izapideak autonomia, erraztasun eta erosotasun handiz egiteko, baita papera aurreztearen ondoriozko ingurumen-inpaktua ere.

Hasierako asmoak gainditu ere egin dira zentzu horietan guztietan, eta pandemiak iraun duen bitartean, izapideak digitalizatzeko beharrak gora egin duenez, Zergabideak gehiago erakutsi du bere erabilgarritasuna eta potentziala. Erronka berrien artean dago Ogasunak enpresetan eta saltokietan fakturazioa kontrolatzeko sistema berrieekin lotutako guztia txertatzea, Faktura Bai edo Ticket Bai bezalako proiektuekin.

(informazio+ - Gipuzkoa.eus – Europar Funtsen komunikazioa)



> Euskadik bere gain hartu du Pirinioetako Lan Elkartearen Lehendakaritza, Europako POCTEFA programaren kudeatzailearena, pandemiak mugaz gaindiko harremanetan eragindako eragina gainditzearen alde eginez

Iñigo Urkullu lehendakariak PLE Pirinioetako Lan Elkartearen XXXIX. Osoko Kontseiluan parte hartu zuen. Bertan, mugaz gaindiko lankidetza-organo horren lehendakaritza hartu du bere gain, ilusioz eta anbizioz, eta Pirinioetako Lan Elkartearen lehentasun orokorrak bultzatzeko helburuarekin: bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa hobetzea; Europar Batasunaren etapa berrian parte hartzea; eta klima-aldaketaren eta eraldaketa digitalaren erronkak aukera bihurtzen saiatzea.

Pirinioetako Lan Elkarateak hiru hamarkada baino gehiagoko esperientzia du, eta Andorra, Akitania Berria, Nafarroa, Aragoi, Okzitania, Katalunia eta Euskal Autonomia Erkidegoko kolektibitateek parte hartzen dute. PLEren helburua Pirinioen garapenean laguntzea da, haien erronkak kontuan hartuta eta indarguneetan oinarrituta; lurraldeen arteko trukeak bultzatuz, Pirinioetako mugari eragiten dioten arazoak batera tratatuz eta etorkizuneko erronkei lotutako ekintza partekatuen bidez konponbide komunak bilatuz.

Pandemiaren testuinguruak, ondorio sanitarioak, ekonomikoak, sozialak eta emozionalak izan ditu eta izaten ari da; kasu honetan, mugaz gaindiko harremanen gaineko eragina gehitu zaie, eta Iñigo Urkulluk laguntza eta bultzada helarazi nahi izan dio Europako Mugaz Gaindiko Mekanismoari. Gainera, lehendakariak azpimarratu du Europaren etorkizunari buruzko konferentzia aukera bat dela mugaz gaindiko lankidetza ordezkatzen duen Lan Komunitate hau bultzatzeko, «Mugarik gabeko Europa batean».

Halaber, POCTEFA 2027 Programa berria prestatzen ari direla gogorarazi du. Programa horrek 240 milioi euro izan ditzake, eta lurralde-helburuak eta kudeaketa deszentralizatua barne hartzen ditu hiru eremu geografikoetan: Pirinioen mendebaldean, erdialdean eta ekialdean.

(informazio+)



> **Geminis enpresak (Elgoibar) teknologia gehigarria aplikatu du bere tornuetan, Eusko Jaurlaritzaren Hazitek laguntza medio: Eskualde Garapenerako Europako Funtsak Euskadirako 2014-20 Programa Eragileak horren % 50 finantzatu du**

Geminis Lathes Elgoibarren dago (Gipuzkoa), eta gaur egun 71 profesional ditu plantillan. Tornu horizontalak eta prozesu anitzeko makinak diseinatzen eta fabrikatzen espezializatuta dago hainbat sektoretarako, hala nola trenbideetarako, siderurgiarako, ontzietarako, oil & gaserako edo makina industrialetarako.

Hazitek eta EGEF funtsarekin batera finantzatutako proiektu honetan, Geminisek bere tornuetan teknologia gehigarria gehitzeko lan egin du, makinaren bizitza erabilgarria luzatzeko helburuarekin, eta baita oso kutsagarriak diren azaleko tratamenduak ez erabiltzeko ere, azken horiek gehigarriko teknologiarekin ordezka baitaitezke.

Geminisek egiten dituen salmenten % 90 inguru atzerrian egiten ditu, Alemanian edo Estatu Batuetan, esaterako.

(informazio+)



EB 2024: ESTRATEGIA

> **EIT Manufacturing-ek, Europako Teknologia Institutuaren manufaktura-dibisioak, 400 profesionalen topaketa bat antolatu du Donostian, Europako mendebaldean, ur eskasiari aurre egiteko berrikuntzari buruz**

EIT Manufacturing-ek, Europako mendebaldeko egoitza Donostiako Miramar Jauregian duenak, «Water Academy» delakoa antolatu du. Hiru online saio egin dira, eta 400 profesionalak hartu dute parte, besteak beste, nekazaritzako elikagaien eta manufaktura-industriaren arloetako profesionalak. Datorren urtean jarduera berriekin jarraituko du.

Glasgowko Klimaren Goi Bilerarekin batera, uraren akademia hau estreinatu da, Berrikuntza eta Teknologiaren Europako Institutuak (EIT), Europar Batasuneko erakunde batek, bultzatutako ekimena. Ekimen honetan lau ezagutza-komunitaterekin lan egin du: EIT Food, EIT Climate-KIC, EIT Digital eta EIT Manufacturing. Azken hori arduratu da lehen hiru saioak antolatzeaz.

EIT Manufacturing-ek 65 erakunde baino gehiago biltzen ditu Europa osoan (unibertsitateak, ikerketa-institutuak eta enpresak). Mendebaldean –Donostian- duen egoitzak Espainia, Frantzia eta Portugal hartzen ditu.

Uraren zati handi bat alferrik galtzen da, eta hobetzeko tarte handia dago. Teknologia berriek, ureztatzea hobeto kudeatzeak, lehortearen aurkako laboreek edo fabriketan ura birziklatzeak % 40 aurreztu dezakete nekazaritza- eta industria-sektoreetan. Horregatik, Europako Batzordea lanean ari da erronka horiek gainditzeko eta herrialdeak, enpresak eta etxeak neurri eraginkorragoak ezartzera bultzatzeko.

Halaber, uretan aditua den Stella Tsaniren presentzia nabarmendu zen, enpresei EBko Uraren Esparru Zuzentarauak nola eragiten dien ezagutzen lagundu ziena, eta, zehazki, aukerak eta erronkak identifikatzen lagundu ziena.

(informazio+)



> Gipuzkoak munduko birziklatze-eraketaz handiena jaso du, besteak beste, Europako udal-hondakinak birziklatzeko helburuak lortu dituen Estatuko lehen lurraldea izateagatik, 5 urteko aurrerapenarekin

Aitorpen horren barruan, ECOVIDRIK munduko beirazko ontzirik handiena jarri du Donostian: omenaldia eta Gipuzkoako herritarren ahaleginaren eta kontzientzia-eraketaren sinboloa.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko diputatu José Ignacio Asensiok ahalegin kolektibo hori nabarmendu du, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak urte hauetan egin duen lana neurri handi batean herritarren energia hori bideratzea izan dela, konpromisoa emaitzetara ekartzeko bitartekoak eta tresnak jarritz, birziklatze-tasaren % 55 gaitu arte eta, bost urte lehenago, Europar Batasunak 2025erako ezarritako helburuak bete arte.

[\(informazio+\)](#)



> **Aldundiak Heritage, Donostiako moda iraunkorreko denda ekologikoa, eta "Ekonomia zirkularra modelatuz" eskultura ekimena babestu ditu, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen esparruan**

Lehen Pop-up-store denda edo denda iragankorra hartu zuen Garberak, Heritage izenarekin, lehen aldiz agertzen den kontzeptu erabat berritzailea; ekonomia zirkularra, ingurumenaren zaintza eta elkartasuna uztartuz. Ekimen berritzaile hau azaroaren 22an ireki zen, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen barruan, eta 2022ko urtarrilaren 15era arte egon da zabalik.

Emaus Fundazio Soziala, proiektuaren sortzailea; Garbera, espazioa doan lagatzen duena, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuaren laguntza proiektuaren egokitzapenerako, marka berri hori bezeroarengana iritsi ahal izatea ahalbidetzen dute, kontsumo jasangarri, arduratsu eta solidarioko formula gisa, formula berriak inoiz baino beharrezkoagoak diren garai batean.

Glasgowko klimaren konferentziak modaren industrian jarri du arreta, munduko bigarren industriarik kutsatzaileenean. Gaur egun, sektore hau aldaketa sakon batean murgilduta dago gutxiago kutsatzera behartzen duten arau berrien aurrean.

Hondakinen Prebentziorako Europako Astea dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak eskulturen sorkuntzaren hirugarren edizioarekin jarraitu du, "Ekonomia zirkularra modelatuz". Horren bidez, hondakinak prebenitzeko eta behar bezala kudeatzeko lanbide-heziketako gazteek egiten dituzten jarduerak islatu nahi dira, ekonomia zirkularra bultzatuz. Helburua da filosofia horretaz sensibilizatzea eta Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleengana zabaltzea.

[\(informazio+ - Heritage\)](#)

[\(informazio+ - Eskulturak\)](#)



> 2021eko abendua

- > **Azpeitiak sorgailu fotovoltaiko bat jarri du bere udal igerilekuan, ia milioi erdi euroko % 50eko kofinantzaketarekin, Eskualde Garapenerako Europako Funtsak jarria, IDAEn bitartez**

Azpeitiko Udalak aurreko legegintzaldietan hasitako udal eraikin publikoen jasagarritasunaren eta energia-eraginkortasunaren aldeko apustuak Europar Batasunaren onarpena lortu du.

Udalak 491.567 euro jasoko ditu eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta udal igerilekuan eguzki-sorgailu fotovoltaikoaren bidez energia berriztagarriak instalatzeko. Guztira, 983.135 euro bideratu ditu. Kopuru hori % 50ean ordainduko da Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF) diru-laguntzarekin, eta, aldi berean, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Estatuko Institutuaren bidez kudeatuko da, Karbono Baxuko Ekonomia izeneko ardatzaren esparruan.

(informazio+)



> **Aldundiak garraio publikoko eskualdeetako liderrek Suedian urtero egiten duten konferentzia europarrian parte hartu du, hiri eta eskualdeen POLIS europar sarean sartzeari esker**

Mugikortasuneko diputatua, Rafaela Romero, Suediako Goteborgen abenduaren 1etik 2ra bitartean egindako POLIS Urteko Konferentzian egon zen. Foro hori POLIS sareak antolatu du — Ander Iturri Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun zuzendaria ere bertan izan da —, eta garraio publikoko eskualdeetako liderren topagunea da urtero. «Hiri eta eskualde jasangarrietarako garraioaren berrikuntza» izenburupean, nazioarteko topaketa honen aurtengo edizioak Europako garraio publikoaren goera eta finantzaketa izan ditu ardatz.

Polis Europako hiri eta eskualdeen sare bat da, 1989an sortua, bere kideei mugikortasun-politikaren helburuak lortzen laguntzeko eta mugikortasun iraunkorragoa lortzeko irtenbide berritzaileak hedatzeko. Kide dituen ehun kideak urtean behin biltzen dira lorpenak eta erronkak partekatzeko. Polis-ek, halaber, Europar Batasunaren ekimen politiko eta legegileei laguntzen die, tokiko eta eskualdeko eremuan eragina izan dezaketen garraioen esparruan.

(informazio +)



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

- > **Europako Batzordearen CulturEU finantziazio-gida, kultura- eta sormen-sektoreak finantzatzeko aukerei buruzkoa 2021-27**

(informazio+)

- > **Euskadiko Lehiakortasun Txostena 2021: alderaketak EBko batezbestekoekin eta eskualdeekin**

Azterlanak bereziki erreferentziatzen hartzen ditu EB-27 osoko batez bestekoak hainbat adierazletan, baita estatuetakoak ere, Alemaniakoak bereziki, eta EBko lehiakortasun handiko zenbait eskualdetako datuak. Hainbat dimentsio jorratzen dira, hala nola ingurumena, non EBko Itun Berdearen estrategia aipatzen den erreferentzia gisa.

(informazio+)

- > **Next Generation EU Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargu Espainiako Estatuari egin beharreko ordainketei buruzko Europako Batzordearen aurreiazko ebaluazio-txostena**

Berriak ebaluazio-txosten hau eranstean du, bai eta Espainiako Berreskuratze eta Erresilientzia Planarekiko lotura bat ere.

(informazio+)

- > **Energiaren Europar Batasuna Berreskurtzeko Tresna (NextGenerationEU): Europako Batzordeak susperraldiaren eta erresilientziaren adierazleen taula bat jarri du martxan**

(informazio+)



> **Foru-aldundiek kanpo harremanetarako Euskadi Basque Country 2025 Estrategia berrian parte hartu dute: estrategia horrek, besteak beste, EBri lotutako lehentasun batzuk ezartzen ditu**

Euskadi Basque Country zeharkako estrategia bat da, eta Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, EUDELeK eta hiru hiriburuetakoko udalek hartu dute parte hura egiteko prozesuan, baita nazioartean jarduera garrantzitsua duten erakunde publiko eta pribatuek ere.

Gainera, lehentasunezko eskualde eta herrialde multzo bat identifikatzen da 2025 epemugarekin, EBko batzuk barne: Frantzia, Alemania, Italia, Suedia, Danimarka eta Finlandia. Eskualde mailan, lehentasunezko eskualdeak, EBri dagokionez, hauek dira: Akitania Berria, Euskal Herriko Aglomerazio Mankomunitatea, Flandes, Bavaria eta Korsika.

Estrategiak eta Kanpo Ekintzako Planak lau ardatz nagusi dituzte.

- 1.- Euskadi Basque Country-ren kanpo-posizionamendua hobetzea. Horren barruan sartzen da Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartzea eta hedatzea, Europako lehentasunezko herrialdeetan ordezkaritza berriak irekiz, Parisekoarekin eta Basque Trade & Investment agentziarenekin hasita.
- 2.- Ehuna sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea
- 3.- Europako proiektuan eta Europar Batasuneko politiken konfigurazioan laguntzea eta parte hartzea. Horretarako, kanal guztiak aktibatuko dira, Europako politiken eta programen diseinuan eragiten duten ekimenetan parte hartzeko. Eusko Jaurlaritzak parte hartuko du konstituzio-eskualdeek sustatutako espazio eta sareetan, EBren erakunde-arkitekturan eragiteko.

Euskal eragileak EBren funtsezko ekimenetan erabat txertatzea bultzatzea. Euskadin EBren finantzaketa-politikak eta -programak zabaltzeko ahaleginak areagotuko dira, batez ere hiru trantsizioekin lotuta daudenak. Euskadik Arku Atlantikoaren Batzordean, Itsas Eskualde Periferikoen Konferentzian eta Pirinioetako Lan Elkartean duen parte-hartzea ere indartuko da, 2023ra arte Euskadiren lehendakaritza izango baitu.

Euroeskualdeko eremua finkatzea. Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen 2021-2027 plan estrategiko berria hedatuko da. Communauté d'Agglomération du Pays Basque – Iparraldearekiko harremana ere areagotuko da.

- 4.- Euskal Autonomia Erkidegoak erronka globalak gainditzeko egiten duen ekarpena indartzea.

(informazio+ eta planaren dokumentua)



> 2021eko abendua

- > **Polizia-lankidetzaren kodea: mugaz gaindiko polizia-lankidetzaren bultzatzea, segurtasuna hobetzeko**

(informazio+)

- > **Batzordeak ekintza-plan bat aurkeztu du gizarte-ekonomia sustatzeko eta lanpostuak sortzeko**

(informazio+)

- > **Batzordearen proposamen berriak garraioaren arloan, eraginkortasun handiagoa eta mugikortasun iraunkorragoa lortzeko**

Garraio sare transeuropar ("STE-G") adimenduna eta iraunkorra.

Mugaz gaindiko eta distantzia luzeko trenbide-zirkulazioa handitzea.

Gidarienezako garraio-zerbitzu adimendunak.

Hiri-mugikortasun garbiagoa, ekologikoagoa eta errazagoa.

(informazio+)



> **Eurobarometroa: europarrek printzipio digitalak babesten dituzte**

(informazio+)

> **Batzordeak klima-neutraltasunerako trantsizio ekitatiborako gida aurkeztu du**

(informazio+)

> **Batzordeak EBren esparru berri bat proposatu du gas-merkatuak deskarbonizatzeke, hidrogenoa sustatzeko eta metano-isuriak murrizteke**

(informazio+)

> **2021eko EBko I+Gko industria-inbertsioari buruzko adierazleen taulak sendoa izaten jarraitzen du IKTen, osasunaren eta ekologiaren sektorean**

(informazio+)



EUROPAKO DEIALDIAK

> Europa konektatzeko mekanismoa (CEF) – CEF 2 (Garraioa) – Oinarrizko sarea – Kohesio atala – 2021eko deialdia (CEF-T-2021-CORECOEN)

- IWWP-Studies/IWWP-Works: barne nabigazioa (azterlanak / obrak)
- MARP-Studies/MARP-Works: itsas portuak (azterlanak / obrak)
- RAIL-Studies/RAIL-Works: trenbideak (azterlanak / obrak)
- ROADS-Studies/ROADS-Works: errepideak, errepide- eta trenbide-terminalak eta multimodalak (azterlanak/obrak)
- Aurrekontua: 2.000 M €

(informazio +)

> Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsa. EMFAF-2021-PIA-FLAGSHIP. Ekonomia urdinaren eta eskualdeetako lankidetzaren proiektu "ikurrak"

- Atlantikoa (Flagship-Atlantic): proiektu helburuanitzak, berriztagarrietazkoak, natur babesa
- Mendebaldeko Mediterraneo (Flagship-Westmed): turismoa berreskuratzea
- Itsaso Beltza (Flagship-Black): ekonomia urdina eta berrikuntzako proiektu pilotuak
- Aurrekontua: 5,44 M €

(informazio +)



> **Horizon Europe. Europako Ikerketa Kontseilua. Hastapeneko laguntzak edo beka. HORIZON-ERC-2022-STG**

- Talde edo proiektu zientifikoaren hasierako fasean dauden ikertzaile liderrentzako dirulaguntzak (berritzaileak, asmo handikoak, bideragarriak).
- Aurrekontua: 749 M €

(informazio+)

> **Horizon Europe. 5. klusterra (Klima, Energia eta Mugikortasuna). 6. helmuga. Garraio adimenduneko zerbitzuak. 1. deialdia 2022. HORIZON-CL5-2022-D6-01**

- Helburu teknologiko espezifikoetarako azpideialdiak (adierazitako eremuen barne)
- 1. Mugikortasun automatizatu interkonektatuko CCAM lankidetzak: erakusleak (50 m €)
- 2. CCAM: segurtasun-erronkak (8 m €)
- 3. CCAM: portaera-eredua (8 m €)
- 4. CCAM: flota-sistematarako zerbitzuak (10 m €)
- 5. CCAM: adimen Artifizialaren Aplikazioa (12 m €)
- 6. Bide-erabiltzaile kalteberen segurtasuna (13 m €)
- 7. Aireko garraioen erresilientzia (9 m €)
- 8. Itsas garraioen segurtasuna (12 m €)

(informazio+)



> **Horizon Europe. 5. klusterra (Klima, Energia eta Mugikortasuna). 3. helburua. Energia hornitzea. 2021eko 2. deialdia. HORIZON-CL5-2021-D3-02**

- Helburu teknologiko espezifikotarako azpideialdiak (adierazitako eremuen barne)
- 1. Olatuen energiako arloa (15 m €)
- 2. Berriztagarrien arloko hezkuntza- eta iraunkortasun-ekintzak (10 m €)
- 3. Berriztagarrien merkaturatze neurriak (10 m €)
- 4. Fotovoltaikoa (20 m €)
- 5. Makrosistema energetikoen arteko baterako eraginkortasuneko neurriak (30 m €)
- 6. Kontsumitzailearentzako zerbitzuak integratzea (25 m €)
- 7. Arriskuen aurkako neurriak (15 m €)
- 8. Sare elektrikoaren diseinu erresilienteak (15 m €)
- 9. Sistema supereroaleak (15 m €)
- 10. Potentzia-elektronika (10 m €)
- 11. Sistema lokalen digitalizazioa (4 m €)
- 12. Karbono harrapaketaren bultzada (2 m €)
- 13. Eraginkortasuna karbono harrapaketaren kostuan (30 m €)
- 14. EBko Geologia Zerbitzuetarako laguntza (20 m €)
- 15. EBko zerbitzu teknologikoei laguntzea (9,8 m €)

(informazio+)

"EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN" webgunea